

EL DECANO

UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Unibertsitate Publikoaren fakultateen artean dimentsio handieneko zentroetako bat da, eta berariazkoak zaizkion alorretan prestakuntzarekin, ikerketa eta gizartearekiko harremanarekin eta ezagutzaren transferentziarekin konpromisoa du.

Egoera berriak, Unibertsitateak egindako zentro-berrantolaketa onorioz, kohesio eta sinergia-erronkak dakartzkigu, eta horiek autonomia eta dibertsifikaziotik abiatuta lortu behar ditugu.

Egungo egoerak, baita ere, erronka lehiakorak dakartzkigu. Batzuk nazioartekotzearekin dute lotura, irakaskuntza eta ikerkuntzari dagokionez, eta beste batzuk merkatu unibertsitarioan zein ez unibertsitarioan eragile ezberdinen jarduerarekin dute lotura.

Ildo horretatik, ezin dugu ahaztu kalitatearen eta bikaintasunaren alde egiten dugun apustua.

Testuinguru horretan, Fakultatearen indar handia nabarmendu behar da, giza kapitalaren balio handia oinarri, baita eraldaketa-prozesuan dagoen sistema unibertsitarioaren berezko zailtasunak ere, bertan nahasten baitira pizgarri kontraesankorrak, ziurgabetasun anitzak eta araudiaren "dinamismoa".

Epe motzean Plan Estrategikoa osatzeko prozesuari ekingo diogu. Horri esker, proiektu bateratua eta guztion konpromisoa lortzea espero dugu, Fakultate gisa hazten jarraitzeko.

Ildo horretatik, pasa den martxoan abiatutako dekano-taldeak ilusioz eta ausardiarekin egongo dio aurre etorkizunari eta unibertsitate-komunitatea agurtu eta gonbidapena luzatzen dio, Fakultatearen bizitzan aktiboki parte har dezan.

Jon Barrutia



Sara de la Rica Goiricelaya irakaslea Iberdrola Españaren administrazio-kontseilura gehitu da. Iberdrola España espainiar Estatuko merkatuaz arduratzen den euskal talde elektrikoaren filiala da.

Sara de la Rica Iberdrola Españako gobernu organo gorenean sartuko den lehene-

go emakumea izango da, eta Inés Macho Stadler Iberdrola taldeko emakumezko lehen kontseilaria bezala, unibertsitateko irakaslea da.

Sara de la Rica, UPV/EHUko ekonomiako doktorea, katedraduna da Ekonomia Analiaren Oinarriak sailean. Horrez gain, Madrilgo FE-

Sara de la Rica, Iberdrola España filialeko kontseilari berria

DEA fundazioko, Londresko CREAM ikerketa zentroko eta Bonneco IZA institutuko ikertzaile elkartua da.

Sara de la Rica oso ezaguna da euskal lan merkatuaren errealitatea eta eboluzioa deskribatzen dituen Euskadiko Lan Txostenean egin duen zuzendaritza-lanagatik. Bilboko ekonomialari hau administrazio-kontseiluko kide izango da José Luis San Pedro Guerenabarrena, Julián Martínez Simancas, Juan Carlos Rebollo Liceaga, Fernando Becker Zuazua, Emilio Ontiveros eta Fernando Diagorekin batera.

Manuela Escribano, Kutxabankeko kontseilari berria

Manuela Escribano Riego irakaslea EHUko Ekonomia Zientzietan lizentziaduna eta doktorea da eta UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Ekonomia Aplikatua II Sailean irakasten du. 2009 eta 2012 artean Eusko Jaurlaritzaren Zerga Administrazioari zuzendari eta Ogasun eta Finantzako sailburuordea izan zen. Aparcavisa, Elkargi SGR eta Uraren Euskal Agentzia (URA) erakundeetako administrazio-kontseiluko kide izan da, baita Euskadiko Zerga Koordinaziorako organoaren eta Euskadiko Ekonomia Arduralaritzako Epaitegiko presidentea ere. Finantzen Euskal Batzordeko eta Kontzertu Ekonomikoaren Batzor-

de Mistoko kidea eta Politika Fiskal eta Finantzarioaren Batzordean EAEko ordezkaria ere izan zen. Hainbat liburu, argitalpen eta ikerketa-proiekturen egilea da, eta euskal aurrezki-kutxen gainbegiratze-organoko arduradun izan eta Kutxabankeko sorreran egon zen.

2016ko ekainean, Kutxabankeko administrazio-kontseiluak Akziodunen Batzar Nagusiari proposatu zion Manuela Escribano kontseilari independente izendatzea; Escribanok aise gauditu zuen

Europako Banku Zentralaren gaitasun-proba.

Izendapen-prozesua Gobernu Korporatiboaren jardunbide egokien eta gainbegiratze-eskakizunen arabera garatu zen. Prozesua pasa den 2015eko azaroan abiatu zen, Kutxabankeko 'head hunters' prozeduran aditua den enpresa kontratatatu zuen eta hark egin zuen hautagaien bilaketa eta hautaketa. Ondoren, bankuaren Izendapen Batzordeak behin betiko izek hautatu eta Administrazio Kontseiluak onartu egin zituen.



Estrategia eta berrikuntza F.C. Barcelonan



Pasa den ekainaren 16an, Enpresa Zuzendaritza Berrikuntzaren eta Internazionalizazioaren Ikuspegitik Unibertsitate Masterraren ikasturteari amaiera emateko, Aitor Jiménez Villarren bisita jaso genuen. Aitor fakultate horretako egresatua da eta 54. promozioako aita-bitxia izan zen. Bere ibilbide profesionala beti egon da berrikuntzaren alorrekin lotuta, Ibermátican hasi eta Futbol Club Barcelonako Estrategia eta Berrikuntzako arduradun izan arte.

FCBren proiektuak "Innovation Hub" du izena (<http://barcainnovationhub.com>) eta 2021era artekoa da. Webgunean azaltzen den moduan, "FC Barcelonak mundua eraldatzen lagundu nahi du, ezagutza eta berrikuntzaren bitartez kirol-bikaintasuna lortuta. Ezagutza eta berrikuntza sustatuko dituen ekosistema bat osatu nahi dugu. Ekosistema horrek bikaintasunaren kultura sustatzen duen eredu izango du oinarri, baita mundu osoko ospe handiko marka, unibertsitate, ikerketa-zentro, star-

tup, ekintzaile, ikasle, kirolari, inbertsore eta ameslariekin elkarlanean aritzeko eredu ere. Horrekin guztiarekin, ezagutza berri bat eta produktu eta zerbitzu berriak sortu nahi ditugu, gure kirolari, gure bazkide, jarraitzaile eta, orokorrean, gizarte osoarentzat izan dadin onuragarri".

Aitorren hitzaldian hainbat erronka nabarmendu ziren, esaterako, teknologia berrien inbertsioa areagotzea, adibidez, baloia "trackeatu" eta jokalarien errendimendua hobetzeko. Beste helburu batzuk ere azpimarratu ziren, hala nola, nazioartean zabaltzea (Txinan eta Estatu Batuetan nagusiki) eta, batez ere, emakumeen kirolak FCBren antolatetan hartuko duen garrantzia. Fundazioaren jardueraz ere hitz egin zen eta nabarmendu zuen "kit Barça" (baloia eta atea poltsa berean) banatzeko ekimena, errefuxiatu-eremuetako haurrek futboleko jolas dezaten.

Azken batean, kirolaren munduko enpresa-ikuspegi berritzailea da.

Ana Blanco

Moda Euskadin: negozioa alda?, eztabaidagaia MBAe3 Ekintzailtza Masterrean

Moda Euskadin, diseinatzaile berriak eta beren negozio-ereduak izan ziren Ekintzailtza eta Modari buruzko Jardunaldi gai nagusiak. Jardunaldia MBA3k antolatu zuen, UPV/EHUko Ekintzailtza eta Enpresa Zuzendaritzako Masterrak, María Saiz irakaslea buru. Jardunaldia 2017ko apirilaren 5ean egin zen, asteazkena, Ekonomia eta Enpresako Fakultateko Gradu Aretoan, Bilboko Sarrikon.

Euskadiko moda-sektorea 621 industria-enpresak eta 595 dendak osatzen du, eta 5.600 pert-

sona baino gehiagok egiten dute lan horietan. Urtean 1.500 milioi euro baino gehiago sortzen ditu, euskal industria-sektorearen guztizko ekoizpenaren %3,2a, alegia. Profesional askok euskal diseinuaren munduak ikusgarritasun handirik ez duela dioten arren, ekintzailtza sen handiko industria da eta diseinatzaileak, sarri, enpresaburu bilakatzen dira, sen hori berezko duen sektorea denez, aukera asko sor baitaitezke.

Fakultatean egindako eztabaida-jardunaldi horretara mo-



Master Amaierako Lanen sari-banaketa

2017ko maiatzaren 19an UPV/EHUko Carlos Santamaría erakinean (Donostian) banatu ziren DSS2106 Donostia Kultura Hiriburua deialdiaren Master Amaierako Lanen sariak. Hainbat lan-ildoren artean, Hiriburutzak sustatutako jarduteko esparruaren eta balioen inguruko ikerketa eta prestakuntza sustatzeko ildo eza-ri zen eta diruz lagundi ziren Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) zein Deustuko Unibertsitatean irakasten diren masterretako

hainbat lan.

Saria jaso zutenen artean Alfredo Payá Ruizen lana aurki dezakegu: "Klase kreatiboa suntsipen kreatiboaren ekosisteman: hizkuntza komunitate minorizatuaren hipotesia". Alfredo Payá Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Enpresa Zuzendaritza Berrikuntzaren eta Internazionalizazioaren Ikuspegitik Masterreko egresatu da. Sari-banaketara bertaratu ziren Payáren Master Amaierako Lanaren zuzendari eta Ekonomia eta En-

daren munduko profesional esanguratsuk bertaratu ziren eta bi mahai-inguru antolatu ziren sektorearen errealitateari buruz hausnartzeko. Moderatzailea Borja Elorza izan zen, Cid FCA! agentziako Komunikazio eta Harreman Publikoetarako zuzendaria. Irekiera-ekitaldian Iñaki Periañezek hitz egin zuen, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Hezkuntza Berrikuntza, Ekintzailtza eta Enplegarritasuneko dekanordeak.

1. mahai-ingurua: "Moda Euskadin, diseinua, marketina eta ekoizpena" bertan parte-hartzaileak izango dira Javier Barroeta, (emaztegaien soinekoen diseinatzailea eta goi-mailako jostuntza) eta Manu Sudupe

eta Laura Pereira, GUTS&LOVE arropa eta osagarrien salmenta-markaren produktu-zuzendaria eta sorkuntza-zuzendaria, hurrenez hurren.

2. mahai-ingurua: "Diseinatzaile berrien prestakuntza eta sustapena. Ekintzailtza berriak modaren sektorean" bertan parte hartuko dute Arte Ederretako Fakultateko irakasle eta UPV/EHUko Moda Masterreko zuzendari Antón Aranak, Telarista Urbanako ehun-diseinatzaile artisaia Lucía Sánchez Puertok eta Ander Aldekoa diseinatzaile gazteak, Nabari markako CEOak. GUTS&LOVE moda eta teknologia.

presaren Fakultateko dekanoa Jon Barrrutia Güenaga, Arturo Rodríguez Castellanos aurreko dekanoa eta Masterreko zuzendaria, Ana Blanco Mendialdua.

Ondoren, Arturo Rodríguez FESIDE Fundazioko Patronatuko presidenteak Alfredo Payá eman zion 2016/17ko ikasturteko Master-espediente onenaren FESIDE saria.



Jorge Gutiérrez Finantza Ekonomia II Saileko irakaslea, REEDES Red Española de Estudios del Desarrollo erakundeko presidente berria

Pasa den martxoan Madriden egindako asanbladan, Jorge Gutiérrez Goria, fakultateko irakasle eta Hegoa Institutuko kidea, Red Española de Estudios del Desarrollo (REEDES) erakundeko presidente hautatu zuten.

REEDES erakundeak 226 pertsona (Espainiako unibertsitateetakoak batez ere) eta 31 erakunde bazkide (katedrak, institutuak, ikerketa-zentroak, azterketa eta ikerketa sailak dituzten GREak, etab.) biltzen ditu.

Sareak ahalegin akademikoak garapen- eta gizarte-arazoekin lotzeko aplikatzea bilatzen du, Espainia mailan aitortzen gertatzen diren (development studies) garatzeko. Alor horrek ibilbide luzea du nazioartean, eta diziplina anitzeko izaera du. Hainbat jardueren artean, REEDES sareak kongresuak antolatzen ditu, ikerketa-taldeak bultzatu, Revista Iberoamericana de Estudios del Desarrollo argitaratzen du, EADI (European Association of Development Research and Training Institutes) sarean parte hartzen du, etab.

Informazio gehiago: <http://reedes.org/>



Una razón para reciclar papel
Reciclar ayuda a disminuir la contaminación del aire y del agua
Ekoskan: Plan de mejora ambiental

Leire Barañano Orbe



neiker
tecnalia

2017ko lehenengo seme-koan zehar, Leire Barañano NEIKER TECNALIA SA sozietate publikoko zuzendari nagusi izendatu dute. Barañano UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa

Fakultateko (Sarriko) Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna da. Bera izan da, orain artean, gure Fakultateko promozioetako baten lehenengo amabitxia; 56. promoziokoa, alegia (2014-2015 ikasturtea) eta Fakultate honetan irakasten diren master batzuetan da irakasle (Marketin eta Merkataritza Zuzendaritza Masterrean eta Ekintzailertza eta Enpresa Zuzendaritza MBAe3 Masterrean).

Maiatzean "Estrategia Empresarial" aldizkarian egindako adierazpenetan, Leire Barañanok adierazi zuen Neiker-Tecnaliako zuzendaritza nagusira heldu dela nekazaritza-produktibitatea eta modernizazioa hobetzea helburu duten proiektu berritzaileak

garatzeko, ingurumenaren babesa oinarri izanda betiere. Horrez gain, berrikuntza eta ezagutzatik abiatuta, Euskadiren sektore- eta ekonomia-eraldaketan laguntzeko ilusioa eta pasioa eman nahi ditu; proiektuak lankidetzan, sektorean bertan eta sareko beste eragile eta balio-katearekin, abian jartzeko gaitasuna, eta ekintzailertza-proiektuak sustatzea, Neikerretik sustatu eta ezagutu diren proiektuekin, euskal enpresa-ehunera zabaltzeko edo ekintzaile berriak bilatzeko.

NEIKERen zuzendari-lanetarako ezarritako erronkei dago-kenez, adierazi du 2017-2020 Plan Estrategikoa definitu berri dutela eta honako hauek direla ezarritako bost erronkak: I+G+b teknologia-transferen-

tziara zuzenduta, ezagutza soluzio transferigarri bihurtu eta ekonomia berrikuntza eta bikaintasun zientifiko-teknologikoaren bitartez sortzeko, bere espezializazioari erreferentzia egiten diona: bioekonomia, ingurumena, animalia- eta landare-osasuna eta laborantza alternatiboak. Ezagutzaren transferentzia prozesua bezeroentzat epe motz eta ertaineko soluzioetan arintzea ere Neikerrek 2017rako dituen helburu nagusietako bat da.

Benetako erronka fakultateko ikasle ohi eta masterretako irakaslearentzat, eta ziur gaude bikaintasunez arituko dela, egin ohi duen moduan.

Marisol Aguirre

Ekonomiaren Irakaskuntzari buruzko Jardunaldiak

Gregorio Villalabeitia Kutxabankek presidentea eman die amaiera Ekonomiaren Irakaskuntzari buruzko Jardunaldien seigarren edizioari, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Egoitza).

Villalabeitiak, gazte unibertsitario eta irakaslez betetako aretoan, Kutxabank bezalako "erakunde lider" batean lan egitearen abantailak defendatu ditu. Horixe izan da bere hitzartzearen argumentu nagusia. Hitzartzearen izenburua "Finantza-zerbitzuen euskal industria lanbide-alternatibagisa. Kutxabank kasua" izan da.

Villalabeitiak Kutxabanken zifra handi eta datu esanguratsuenak labur azaldu ditu lehenengo -horien artean, urteko irabazien %50 banku-fundazio jabeen gizarte-ekintzara bideratzen dute- eta ondoren,

finantza-taldeko presidentea erakundeak Kutxabank proiektuaren parte izan nahi duten gazteengan zein gaitasun, ezagutza eta trebetasun bilatzen dituzten azaldu ditu.

"Merkataritza-talentu espezializatu eta digitala duten pertsonak hautatzeko prozesuan murgilduta gaude, etorkizuneko banku-sektoreko profesionalak prestatzeko", baieztatu

du ikasle eta irakaslez betetako aretoan.

Gregorio Villalabeitiak bere hitzartzean adierazi du finantza-sektoreak "merkataritza-talentu espezializatua eta digitala" behar duela. "Kutxabank-gaineratu du- hautaketa-prozesua egiten ari da, enpresa lider batean hazkuntza-proiektu batean parte hartzeko aukera eskaintzen du, garapen

profesionala eta aberastasun pertsonala eskaintzen ditu, baita prestakuntza-eskaintza zabala ere, pertsona bakoitza etorkizuneko banku-sektorean lan egiteko gaitasuna duen profesional bihurtzeko".

Ekonomiaren Irakaskuntzari buruzko Jardunaldiak ekainaren 15ean hasi ziren eta egun horretan banatu ziren Ekonomia Olinpiadan kalifikazio onenak jaso zituzten ikasleei sariak. Ikasle horiek, ondoren, estatu mailan Kordoban izango dira gure ordezkariak. Zehazki, Ane Ayani Andikoetxea gure ikasleak hirugarren saria lortu zuen.

Jardunaldietara bertaratu ziren Pedro Azpiazu Ogasun eta Ekonomiako sailburua, Nekane Balluerka UPV/EHUko errektorea eta Jon Barrutia Fakultateko dekanoa.

